

Ez nuen pentsatu bi aldiz, mendira Joan, txirula hartu eta elfoen abestia jotzen hasi nintzen. Bukatu nuenerako Pegaso nire aurrean zegoen. Marrubi batzuk eskuan ipini eta luzatu nionean besoa, bera jaten hasi zen. Nik, maitekiro bere burua laztandu nuen. Minutu batzuk geroago hegan egiten geunden. Pegaso zuri zuria zen, oso polita zen. Zuzendu nuen mendira, lurrera... joateko.

Berriz liburua begiratzten jarraitu nuen; lepokoa non zegoen jakin behar nuen. Liburuaren arabera, lepokoa aurkitzeko usainaren bidez bakarrik segitu ahal zen eta gero edan. Pozioaren osagaiak hauek ziren: Andavariaren eskama bi, Cugneten poltsako hauts pixka bat, Croquiaosaren pozioaren tanta bat, Elfo baten ile bat, Esfingearen hegala baten luma bi, Ceriforen beste bi luma, Hydra de Lernaren odola eta Bergfolken zopa .

Pegasori ea zekien Hydra de Lerna bizi zen lakua non zegoen galdetu nion eta berak baietz esan zuen buruarekin. Bidaia labur xamarra izan zen. Heltzean lakuan ez zegoen inor baina ezustekoa hartu genuen munstroa ikusi genuenean. Hura dragoia, hura!!! Ehun buru zituen gutxienez, eta hogeit Pegaso bestekoa zen. Ezpata hartu nuen eta buru bat moztu nion. Lakura sartu zenean ontzi bat hartu eta burutik odola hartu nuen. Bukatu nuenean dragoia atera zen buru bat moztuta, baina handik halako bi atera ziren.

Berak harrapatu baino lehen Pegaso eta ni hurrengo pausuan, ia Hiltokian geunden. Heldu ginenean Hiltokira zulo bat bilatzen hasi nintzen, eta aurkitu nuen. Barrura sartu eta Croquiasoari pozio bat eskatu nion. Oso jatorra izan zen, baina berak eman zidala inori ez esatea eskatu zidan. Nik zin egin nuen eta eskertu genion.

Gure hurrengo pausua: Basoa. Hosto batzuk mugitu eta gero, Belfok eta bere zaldia aurkitu nituen. Eskatu nion zopa eta berak esan zuen baietz, baina txanpon baten truke eta horrela egin nuen. Edabea eta zopa ontzian sartu nituen.

Gaua egin zenean, esnatuta egon nintzen eta bat-batean Cugnet aurkitu nuen eta hauts batzuk eman zizkidan.

Eguzkia irten zenean ibilaldia jarraitu genuen. Nik ez nekien, baina susmoa nuen norbaiz gu zelatatzen zebilela.

Hurrengo tokia: Ur jauziak. Hara Joan ginen, bainu-santzia ipini nuen eta uretara sartu nintzen. Denbora bat pasatu eta gero Andvari aurkitu nuen eta galdetu